



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Giza Baliabideak

Udal-plantilla

Udal-hauteskondeek baldintzatu zuten Udalaren jarduera 2015ean, eta bozek eraginda, gobernua aldatu egin zen. Horrek, aldi berean, udal-plantillaren aldaketa eragin zuen. Udal-plantilla 2011n onetsia zen azken aldiz. Talde berriak udala bestela kudeatzeko oinarriak ezarri, eta **langileria-egitura berria** diseinatu zuen, egungo beharrei eraginkortasunez eta efizientziaz erantzuteko. Horren haritik, 2015ean lanpostu batzuk amortizatu eta berriak sortu zituen.

Plantillaren bilakaera

	2011	2012	2013	2014	2015
IRUÑEKO UDALA					
Funtzionarioak	1033	987	987	936	901
Aldi baterako langileak	244	286	259	315	372
'HAUR ESKOLAK' ERAKUNDE AUTONOMOA					
Lanaldi osoa	117	117	117	117	150
Lanaldi murrizta	20	20	16	16	32
HIRIGINTZA-GERENTZIA	30	30	30	30	33
GUZTIRA	1444	1440	1409	1414	1488

Hautapen-prozesuak

2015ean, hainbat **hautapen-prozesu** egin ziren bere osoan Musika Eskolako irakasle izateko; oboekoa, baxu elektrikokoa, bateriakoa, gitarra elektrikokoa, bai eta hizkuntza musikalekoa ere. 2015ean, ordea,

administrari laguntzaileen hautapen-prozesuak bildu zituen izangairik gehien: 2.791 lagun aurkeztu, eta haietatik, 2.725 onartu ziren. Azterketa 1.490 lagunek egin, eta 1.056k gainditu zuten.

Halaber, ehorzle laguntzailearen eta instalazio anizkoitzen funtzionamendurako laguntzailearen hautapen-prozesuak bukatu ziren, eta beste bi deialdi ere hasi ziren: Artxiboko erdi mailako teknikariarena eta Gizarte Enplegu Babestuko ibai- eta mintegi-lanetarako 1. mailako ofizialarena.

Negoziaketa kolektiboa

2015ean **sindikatu**ekiko **elkarrizketei berrekin zitzaien**, Iruñeko Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen enplegu-baldintzen gaineko akordio berria 2016an lortze aldera. Lehen akordioa Udaleko aldi baterako kontratazio-zerrendak kudeatzeko prozedurari buruzkoa izan zen.

